

EUSKARA SUSTATZEKO 2006KO DIRU-LAGUNTZAK

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren 2006ko diru-laguntzen deialdiak maiatzean zehar argitaratuko dira Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean. Behin argitaratuta, hilabeteko epea egongo da 2006an egingo diren programentzako eskariak aurkezteko. Guztira 10.825.000 euro erabiliko da.

Deialdien helburua euskararen erabilera sustatzea da, hainbat arlotan: hedabideetan, enpresa eta lan munduarekin lotutako esparru sozio-ekonomikoan, udalerrietan, aisialdian, informazio eta komunikaziorako teknologietan.

Diru-laguntzen deialdiak lehiaketa publikoak dira, eremu bakoitzean lanerako ezarritako ildo nagusien gainean programak aurkezteko. Horren bitartez, gizarteko elkarte eta erakundeek ekimenez euskara sustatzeko sortzen diren egitasmoak lagundu egiten ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, kalitatezko zerbitzu eta produktuak izan ditzagun eskuartean. Izan ere, herri erakundeek beren gain hartzen dituzten eginbeharrekin batera, guztiz garrantzitsuak dira gizarteko taldeengandik sortuta bideratzen direnak. Elkarren osagarri dira eta halakoak indartzeari ezinbesteko iritzi dio beti Eusko Jaurlaritzak.



Hizkuntza Politikarako sailburuordea den Patxi Baztarrika jauna bere taldeko zenbait kiderekin.

ESPARRUA	DIRUA
Toki-entitateak	1.600.000
Esparru sozio-ekonomiko pribatua	1.825.000
Euskalgintza	1.250.000
Hedabideak	4.750.000
IKT	1.000.000
Iparralde eta Nafarroa	400.000
GUZTIRA	10.825.000

Deialdien bitartez ez ezik, beste bide batzuk ere badaude gizarte erakundeek laguntzeko. Esaterako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hitzarmena egiten du urtero zenbait erakunderekin, euskara sustatzeko lanean haien sostengu izaten laguntzeko, batzuetan Foru Aldundiekin batera, beste batzuetan bakarrean. Halakoak dira Euskaltzaindia, Labayru Ikastegia, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkarte (EIZIE), Idazleen Elkarte (EIE) eta Bertsozaleen Elkarte. Hitzarmen horien bidez, erakundeon urteko programak aurrera eramateko laguntza ematen zaie.

Horrez gainera, euskara sustatzeko helburuarekin ere, bai euskaltegien bitartez ikaskuntza bideratzeko, bai administrazioaren gainerako atalek dela barnera begira dela kanporako egiten dituzten lanetan, hainbat ahalegin egiten dira zuzenean zein zeharka.

Eta horren emaitzak begien bistakoak dira: euskaldunen kopurua gora doa urtez urte, gero eta zerbitzu gehiago eta hobeak daude euskaraz, euskarazko produkzioa handituz doa bizitzako arlo guztietan.

TOKI-ENTITATEAK

Helburua: Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateetan Euskara Biziberritze-ko Plan Nagusia (EBPN) garatu edota entitateotako administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko planak onartzeko diru-laguntzak ematea.

Norentzat: Euskal Autonomia Erkidegoko Toki-entitateak (udalak, mankomunitateak...) eta beren menpeko erakunde autonomiadunak (euskara patronatuak...) hizkuntza normalizazioa beren egitekoen artean badago.

Laguntza gaiak:

- 1.- EBPN onartu eta urteko, 2006ko, kudeaketa-plana gauzatzeko.
- 2.- Toki-entitatearen administrazioan hizkuntzaren erabilera normalizatzeko plana presatzea.
- 3.- EBPN abian jarri nahi duten toki-entitateentzat, plan estrategikoaren diseinua eta onarpena eta 2007ko kudeaketa-planaren diseinua.
- 4.- Toki-entitateak hizkuntza normalizatzeko bideratzen dituen ekintzak, EBPNrekin lotuta baina EBPNko ez plan estrategikoa ezta kudeaketa-planik martxan ez duenean.

Diru baliabideak: 1.600.000 €.



ESPARRU SOZIO-EKONOMIKO PRIBATUA

Helburua: Eguneroko jardunean euskararen erabilera areagotu nahi duten erakunde pribatuei laguntza ematea.

Norentzat: Entitate pribatuentzat eta zuzenbide publikoko korporazioentzat, Euskal Autonomia Erkidegoan dituzten lantokietan euskara-planak egiteko.

Laguntza gaiak:

- 1.- Enpresak urte anitzeko bere euskara-plana eta 2006ko kudeaketa-plana aurkez ditzake deialdira.
- 2.- Plana aurrera eramateko beharrezkoak diren itzulpenak eta interpretazio-lanak egitea; langileen lanposturako hizkuntza-trebakuntza.
- 3.- Lana euskaraz egiteko euskarazko edo ele bitako softwarea erostea, prestatzea edo egokitzea.
- 4.- Plangintzaren jarraipena, ebaluazioa eta egokitzapena burutzea.

Diru baliabideak: 1.825.000 €.

EUSKALGINTZA

Helburua: Gizarte-bizitzaren esparru jakinetan euskara sustatu, garatu edota normalizatzea, batez ere aisialdi, kirol eta esparru ez formaletan.

Norentzat: Esandako esparruetan euskararen erabilera bultzatzen ari diren erakunde pribatuentzat.

Laguntza gaiak:

- 1.- Aisialdia: Aisialdian euskararen erabilera areagotu eta sendotzeko egitasmoak; jostailuak, jokoak eta denbora-pasak.
- 2.- Hizkuntza-gaitasuna eta hizkuntza-trebetasuna sendotzeko egitasmoak.
- 3.- Euskararen familia bidezko transmisioa sendotzeko egitasmoak.
- 4.- Euskaraz irakurri eta idazteko zaletasuna eta trebetasunak garatzeko egitasmoak.
- 5.- Omenaldi eta gertakari berezien ospakizunak.
- 6.- Euskararen ondareari buruzko informazioa jaso, gorde edota digitalizatu eta hedatzea helburu duten egitasmoak.
- 7.- Erdal mundua euskarara hurbiltzea eta beroriei euskaraz sortu eta burututako jardunaren berri ematea.
- 8.- Ikusmen arazoak dituztenentzat materialak egokitzea.

Diru baliabideak: 1.250.000 €.



HEDABIDEAK

Helburua: Hedabideetan euskararen erabilera sustatu, sendotu, garatu eta normalizatzea.

Norentzat: Egunkari, aldizkari, irrati, telebista zein Internet bidezko hedabideren bat egiten duten erakunde pribatuentzat.

Laguntza gaiak:

- 1.- Idatzizko hedabideak:
 - Euskara hutsezko eguneroko prentsa.
 - Euskara hutsez zabaltzen diren aldizkariak eta gehigarriak.
- 2.- Irratiak: euskara hutsez ari direnak zein partez euskaraz ari direnak.
- 3.- Telebistak: euskara hutsez ari direnak zein partez euskaraz ari direnak.
- 4.- Internet bidezko euskara hutsezko egunkari eta aldizkariak, eta notiziak euskaraz ematen dituzten berri-agentziak.

Diru baliabideak: 4.750.000 €.



IPARRALDEA ETA NAFARROA



Helburua: Iparraldean eta Nafarroan euskararen erabilera sustatzeko ekimenak garatzea.

Norentzat: Iparraldean eta Nafarroan euskara sustatzeko ekimenak gauzaten dituzten erakunde pribatuentzat.

Laguntza gaiak:

- 1.- Euskararen ondorengoetartazeari eta hiztunak sortzeari begira: sentiberatzea; euskarazko materialgintza ziurtatzea; euskalduntze-alfabetatzean diharduten eragileen etengabeko prestakuntza eta baliabideak bideratzea.
- 2.- Euskararen erabilera sustatzeari begira, aisialdian eta eskolaz kanpoko ekintzetan nagusiki.
- 3.- Euskararen elikadura sendotzeari begira: euskaraz diharduten komunikabideak sustatzea; Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berrietan euskararen erabilera bultzatzea; hizkuntza-ondarea eta toponimia berreskuratzea eta normalizatzea.
- 4.- Euskararen bilakaera soziolinguistikoa hobeto ezagutzen joateko ikerketa-lerroak.
- 5.- Euskararen aholku-batzordeen arteko elkarlana bideratzea.

Diru baliabideak: 400.000 €.

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

Helburua: Informazioaren eta komunikazioaren teknologietan (IKT) euskara sustatu, garatu edota normalizatzea, tresna informatikoak eta Interneteko edukiak ugartzea.

Norentzat: Informazioaren eta komunikazioaren teknologietan euskararen erabilera areagotzeko lanean diharduten erakunde pribatuentzat.

Laguntza gaiak:

- 1.- Euskarazko atari eta web guneak egitea eta lehenago sortutakoak eduki eta zerbitzuz elikatzea.
- 2.- Hizkuntzen teknologietan euskara integrazteko egitasmoak.
- 3.- Softwarea euskaraz sortzea edo eta euskarara lokalizatzea.
- 4.- e-inklusioa.

Diru baliabideak: 1.000.000 €.



EUSKARA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK: 2005EKOAREKIKO ALDE NAGUSIAK

Aurreko urteko deialdiekin alderatuta, aurten desberdintasunik handiena da askoz diru gehiago jarri dela denetan: aurten ia baino % 27,07 gehiago.

Euskara sustatzeko diru-laguntzen hazkundeak erakusten du euskararen eta gizarteko talde, elkarte eta erakundeen alde bultzada handia eman nahi dela, euskarazko produkzioa ugartu eta kalitatezkoa izatea ziurtatzeko. Igoerarik handiena izan dute lan-munduko deialdiak eta Informazio eta Komunikazioaren Teknologia laguntzen dituztenak, % 63 eta % 66,7 hurrenez hurren, bi biak lan-lerro estrategikoak diren aldetik. Oro har deialdi guztiak datoz aurreko urteetako bidetik, baina denetan daude doikuntzak, laguntza-gaiak direla, irizpideak direla, baldintzak direla, diru-kopuruak direla. Hona banan-banan ezaugarri berri nagusiak.

Toki-entitateen deialdian euskara planaren ebaluazioari eta datorren IV. Plangintza-aldia- inguruan egin beharreko hausnarketari emango zaie lehentasuna. Horrez gainera 2006-2007ko ekimenak lagunduko ditu, bi urtez luzatutako ekimenak beraz. Eta proiektu pilotuak sustatuko dira.

Lan-mundurako deialdian, Erreferentzia Marko Estandarra hartzen da oinarritzat, hau da, enpresak euskararen erabilerari begira dituen hiru lan-arloak: 1) enpresaren oinarritzko irudia eta komunikazioa, adibidez errotulazioan eta harreran euskararen erabilera bermatuz; 2) enpresaz kanpoko harremanak, bezeroekin eta hornitzaileekin, ahoz eta idatziz hala nahi duten bezeroei arreta euskaraz eskainiz; 3) enpresa barneko harrema-



nak, langileen artean euskararen erabilera bultzatuz.

Horren arabera, enpresa bakoitzak bere neurriko plana osatzeko orduan gida sistematiko eta koherentea izango du, indarrean diren planifikazio-sistemekin bat etorritz.

Euskaingintza deialdian edukie dagokienez laguntza gai berria dago: erdal mundua euskarara hurbiltzea eta euskaraz sortutakoaren berri haiengana helaraztea, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren lan-ildoetako bat baita.

Hedabideentzako deialdian ere atal berria dago laguntza-gaietan, aldizkari atalean gaztelania nagusi duten egunkarietako gehigarrietan. Baldintza batzuk bete beharko dituzte: gutxienez 16 orrikoak izatea eta astean behin argitaratzea urtean zehar. Egunkarietan euskarak leku handiagoa izan dezan eta euskarazko hedabiderik irakurtzeko ohiturarik ez daukaten irakurleengana heltzeko modua izan daiteke.

Informazio eta Komunikaziorako Teknologien deialdian, laguntza-gaiak asko aldatu gabe, zenbait lerro indartu egin dira eta beste batzuk

zehatzago definitu. Esate baterako, hizkuntzen teknologiei dagokiena eta softwarea euskaraz sortu zein lokalizatzei buruzkoa.

Iparraldean eta Nafarroan euskara sustatzeko laguntzen deialdia aurreko urtekoaren berdina, bai edukietan bai dirutan.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) / Tel.: 945 01 81 16 • e-posta: I-Sosoaga@ej-gv.es